

## BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

672

*EBAZPENA, 2023ko urtarrilaren 31koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita zein erakundek jaso duten dirulaguntza, toki-erakundeek Euskal Autonomia Erkidegoko EGF Plus 2021-2027 Programaren esparruan gazteak kontratatzeko 2022ko laguntza-deialdiaren babesean.*

Dirulaguntza publikoak emateko jarraitu beharreko publikotasun-printzipioa betetzeko, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikulua ezarritakoa kontuan hartuta, laguntzak emateko ebazpenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar dira.

Horrenbestez, hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea zein erakundek jaso duten dirulaguntza, toki-erakundeek Euskal Autonomia Erkidegoko EGF Plus 2021-2027 Programaren esparruan gazteak kontratatzeko 2022ko laguntza-deialdiaren babesean. Dirulaguntza horien deialdia Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak onartu zuen 2022ko ekainaren 9an egindako bileran (erabaki hori 2022ko ekainaren 22ko EHAA argitaratu zen, 120. zenbakian). Onuradunen zerrendarekin batera, onuradun bakoitzari emandako dirulaguntzaren zenbatekoa adierazten da, ebazpen honen eranskinean azaltzen den bezala.

Bigarrena.– Berariaz aipatu behar da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Europako Gizarte Funtzak batera finantzatu dituztela laguntzak, Euskal Autonomia Erkidegoko EGF Plus 2021-2027 Programaren esparruan.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 31.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA GLORIA MÚGICA CONDE.

2023ko otsailaren 9a, osteguna

## ERANSKINA

Espedientea	Erakunde onuradunak	Emandako dirulaguntza (eurotan)
2022/GEL/000001	Forlan	116.541,24
2022/GEL/000002	Inguralde	544.484,10
2022/GEL/000006	Añanako Eskualdea	180.309,30
2022/GEL/000010	Irungo Udala	185.773,55
2022/GEL/000003	Bilbao Ekintza EPEL	4.190.722,77
2022/GEL/000004	Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbenako Udala	214.908,86
2022/GEL/000005	Balmasedako Udala	126.565,49
2022/GEL/000007	Lapuebla de Labarcako Udala	26.419,77
2022/GEL/000009	Güeñesko Udala	68.294,87
2022/GEL/000011	Tolosako Udala	244.044,17
2022/GEL/000008	Artziniegako Udala	35.226,36
2022/GEL/000012	Urkabustaizko Udala	97.430,18
2022/GEL/000013	Meatzaldeko Behargintza SL	29.135,31
2022/GEL/000014	Basauriko Udala	94.088,77
2022/GEL/000015	Meatzaldeko Behargintza SL	58.270,62
2022/GEL/000016	Mendaroko Udala	22.636,69
2022/GEL/000017	Gaintzako Udala	39.159,56
2022/GEL/000019	Meatzaldeko Behargintza SL	97.430,18
2022/GEL/000021	Zumarragako Udala	39.159,56